-Duen taldea edo gizabanakoak animatzeko eta harremanetan jartzeko estilo bat izatea. Estilo "elkarkor" hau beste muturrean dago "nagusi orojakile eta ahalguztidun"arekin alderatuz gero.

-Betetzen duen paperean eta egitekizunean benetan ere konpetentea izatea, hau da, animazioan erabiltzen diren teknikak menperatzea.

-Heldutasuna izatea bizi den egoeran gertatzen diren arazoak somatzeko eta gertaerez hobeto jabetzeko. Funtsezkoa da gertaerak eta harremanak objetibotasunez eta urrunketa batez neurtzen uzten duelako.

-Entzuteko eta hitz egiteko jarrera. Monitorea dauden taldeen eta baliabideen arteko lokailua da. Zubiak eraikitzen ditu eta ez hormak.

-Egoerak eta arazoak aurrikusteko gaitasuna, zeren gazteak, helduak bezala, ez dira iraganean oinarrituta hezi behar, ezta gaurkoan ere, baizik eta etorkizuna dela iparrizar.

**HEZKUNTZA AISIALDIAN PLANTEATZEKO KOADROA**

| | |
|---|---|
| AKTIBITATEA haurren INTERESGUNEETAN ardaztea | HAINBAT estimulu eskaintzen zaion giroa, LASAIA eta haurren ekoizpenekiko ABEGIKORRA |
| ADIERAZPENA ETA SORMENA giro askean | ANIMATZAILEEN ERRESPETUZKO jokaera. Lana: GAUZAK ARGITZEA ETA LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEA. |
| haurrek TALDEAN AUTOGESTIONATZEA beren kontuak | |

# Hezkuntza ez-formaleko bi zerbitzu berri

JUBETE,M. ,MAJEM,T., ESTELA,A.
"Context i Infància" proiektua.
Institut Municipal d'Educació de Barcelona.



BRULEY, M; tourn, L. "*Enfantines*," L'école des loisirs, Paris. 1988

Haurrek bizitzako lehen urteetatik hezkuntz kontestu desberdinetan parte hartzeko duten eskubideak oso arreta gutxi du gure herrian. Haur hezkuntza ez da hezkuntz sisteman berez nortasuna duen etapa bat eta, beraz, adin honetako haurtzaroa ardazten duten hezkuntz irizpideak ez dute exklusiboki laguntza edo prebentzioa jorratzen. Hezkuntz konpetentziak dituzten Administrazio desberdinek ahalegin handia egiten dute 3 urtetik gora eskolaratu nahi diren haur guztientzako tokia eskaintzeko. Halere, txikitxoenek aukera gutxi dute oraindik ere etxeko esparruko hezkuntza zabaldu eta indartu asmoz, hezkuntz zerbitzuetara joateko. Horrela bada, guraso askok Umezaintzara eramaten dituzte haurrak han haurrok hazteko eta hezteko laguntza ematen baitiete; baina beste batzuk, euren usteak direla-eta, edo lekurik ez dagoelako edota beste arrazoiren bategatik, ez dute zerbitzu hau erabiltzen, eta aitzitik, agertzen dute beste zentru batera joateko interesa euren haurraren hezkuntza beste alor batzuetara zabaltzeko eta osatzeko: esate batera, beste neskatila-mutiko batzuekin egon. Arrazoi hau dela medio, Bartzelonako Udaleko Hezkuntz Institutu Munizipaletik eta "Van Leer" fundazioaren laguntzaz, eskolatu gabeko 0-3 urteko haurrentzako hezkuntz zerbitzuak sortzea planteatu genion geure buruari. Helburua dagoen hezkuntz eskaintza zabaltzea zen, eta hala, familiako behar desberdinei erantzutea haurren hazkuntzari eta hezkuntzari dagokionean.

Hain zuzen, bi zerbitzu jarri dira martxan: "Haur bat dugu", hiriko auzo batzuetan funtzionatzen zuenak; eta "Familiaren gunea" delakoa, zerbitzu berria Catalunyan baina Europako hainbat lekutako formulak eta esperientziak jasotzen dituena.

Funtsean zerbitzu hauek Haur Hezkuntza inspiratzen duten irizpide berberek animatzen dituzte; neskatila-mutikoei garatzeko kontestu bat eskaintzen diote, nahiz eta, praktikan ez diren Haur Eskoletan bezala konfiguratzen, besteak beste, badirelako eskolako ordutegia duen hezkuntz zerbitzurik nahi ez duen familiarik, bai guraso batek ez duelako lanik egiten, bai haurra lehen urteetan etxean hezi nahi dutelako.

## ❑ "Haur bat dugu"

"Ja tenim un fill" Bartzelonako Canyelles auzoan duela urte batzuk hasitako programa da. Hainbat auzotara

hedatu da eta duela hiru urte geure programara ekarri genuen. Ama orain dela gutxi bilakatu diren emakumeei zuzenduta dago. Haurraren lehen zortzi hilabeteetan joan daitezke, lanean ez badaude, edota Catalunyako legeak uzten dituen lau hilabeteetan. Hezkuntz zerbitzu hau, beraz, neskatila-mutikoen bizitzaren lehen hilabeteetan taxutzen da. Batik bat jaio berriaren amari zuzenduta badago ere, bada animatzen den aitarik ere. Saioak astean hiru orduz izaten dira eta hezitzaileak bai amari eta bai haurrari zuzentzen zaizkie.

Zerbitzu honetan, amari haurra behatzeko kontestu ezinhobea eskaintzeaz gainera, familien hezkuntz konpetentzia animatu nahi da eta behar diren laguntzak eskaini amari txikia zaintzean ziur egon dadin, eskariak ondo eta zuzen ulertzen eta momentuan-momentuan egoki erantzuten jakin dezan.

## ❑ "Familiaren gunea"

"Espai familiar" txiki eta haundi elkartzeko eta elkarrekin erlazionatzeko gunea da. Neskatila-mutikoek normalean zaintzen dituen pertsona nagusiak lagunduta (ama orokorrean) jolasten dute, bi egun astean eta hiru bat orduz. Horren bidez, haurraren aktibitatean parte hartzeko aukera ematen da, nola erlazionatzen den familiako giroa ez den giro batean, eta antzeko egoeratan dauden helduekin iritziak eta ikuspegiak elkartrukatzeko. Asistentzia ez da derrigorrezkoa eta joan nahi duten familiek beren beharren arabera erabiltzen dute espazio hau.

Hainbat helburu dituzte guztiek ere: haurrari garatzeko kontestu bat eskaini nahi diote, familakoa ez dena. Ildo honetatik, umeei hainbat esperientzia bizitzeko materialak eta ekintzak eskaintzen dizkiegu, etxean egiten ohituta daudenen aldean desberdinak.

Zerbitzu honen filosofia gurasoek beren seme-alabak hezteko konpetentzia osoagoa izateko desirarekin osatzen da. Ondo ezagutzen da familia giroak haurrarengan duen eragina. Haurrek kontestu formaletan edo informaletan garatzen eta ikasten dute, zeren inguruan dituzten helduek mundua interpretatzen dute eta beraientzat ulergarri egin, gauzak erakusten dizkiete eta animatu beraiek egin ditzaten. Hau ez da hezkuntzako profesionalek soilik egiten duten gauza bat, etxean gurasoek ere berdin jokatzen dute, beraz lehen hezitzaile gisa agertzen dira. Hori dela-eta, familia giroan eragina izaten saiatu ginen, are gehiago, normalean haurra zaintzen duten pertsonetan: ama, aita, aitona, amona... beren hezkuntz gaitasuna sustatu nahiz eta horren bidez, ziurtasun gehiagoz jokatzea eta aldi berean oso egokitzat ez dituzten hainbat praktika aldatzea.

Ezarritako helburuak eskuratzeko antolatu diren sesioetan umeak nagusiekin egoteko denbora izaten da eta baita haurrak eta nagusiak banatuta, beti ere bakoitzaren behar eta zaletasunei erreparatuta.

Familian, helduen eta haurren arteko elkartrukatzeak gorputza zaintzearekin dute zer ikusi gehien. Hori dela-eta, zerbitzu honetan, hezitzaileek haur eta nagusien arteko jokuak eta aktibitateak eskaintzen dituzte, zuzenduta daudelarik haurren gaitasunak esnatzera eta garatzera. Hezitzaileen lana gurasoei materialak eta jolasak nola erabili azaltzea eta orientatzea da. Beste heldu batzuk haurrekin nola jokatzen duten ikusteak norberaren haurrarekin erabil daitezkeen estrategiak eta baliabideak gehitzen laguntzen du.

## ❑ Hezkuntza eta familiako kontestua

Egiaztatu da helduek haurren gaitasunei buruz dituzten iritziek baldintzatu egiten dutela neurri handian haurrei proposatzen zaizkien aktibitateak eta horietan uzten zaien autonomia eta iniziatiba. Horregatik, hezitzaileek, beren proposamenak eta esku-hartzea medio, haurrek beren gaitasunak adieraztea erraztu nahi dute. Egoera honetan, haurrei egiten zaizkien proposamen batzuk esanahia hartzen dute nagusientzako ere. Azken hauek, ikusten dutenean nola haurrak jolastu egiten duten eta zenbait egoeratatik airoso irten, jabetu egiten dira hainbat aktibitate garrantzitsu direla eta ordurarte ohartzeke zeudela.

Gure herrian, familiaren kontestuan, neskatila-mutiko gehienak amarekin egoten dira eta beste pertsona heldu batzuek (anai-arreba nagusiak, aiton-amonak, aitak...) ez dute normalki zaintzen parte hartzen. Edozein isolamenduk dakartzan arriskuak ekiditzeko, komenigarria da haurrei esperientzia gama zabalagoa eskaintzea, beste hartu-eman mota batzuk ezagutaraztea. Aldian-aldian beste haur eta heldu batzuekin egoteak aberastu egiten du eta perspektiba berriak zabaldu elkartrukatze sozialerako.

Familiako praktikei buruz egin diren ikerketa askok haurrak jaiotzatik hainbat gaitasun duela adierazten dute, eta baita familak haurra hezteko duen arduraz zein konzienzia gutxi dagoen. Egiaztapen honek erreafirmatu egiten gaitu gurasoek beren paperaz jabe daitezen, beraiek dira-eta lehen hezitzaileak. Helburu honekin, gure zerbitzuan, haurrak jolastu ahala eta hezitzaile batek proposatutako aktibitateetan parte hartu ahala, nahi duten helduek, beste hezitzaile batekin, haurren hezkuntza eta hazkuntzari buruz hausnartzeko aukera dute. Kontrobertsia, ideiak, esperientziak, iritziak elkartrukatu, gai xumeak direla ere, beti agertzen direnak (haurrak ez duela ondo lo egiten, non jarri mugak, bikotearen gora-beherak hezkuntza dela-eta...). Horrekin batera, oinarrizko informazioa ematen da haurren garapenari buruz, familiaren ziurtasuna handitu egiten da haurra hezterakoan



Txatxilipurdi. AED. Arrasate

eta erraztu egiten da erabakiak hartzea honen inguruan. Azken finean, garatzeko kontestu bat eskaini nahi da, non neskatila-mutikoek esperientziak zabaldu egin ditzazketen eta, baita, non familiaren hezkuntz eginkizuna laguntzen den.

## ❑ Aktibitateak

Hainbat adinetako haurrak aktibo izaten motiba daitezen antolatuta daude espazioa eta materialak, bai bakarka, bai taldeka, bai amaren laguntzarekin bai gabe; hau da, espazioaren eta materialen banaketak (jolas txokotxotan), aktibitate askea eta espontaneoa errazten du.

Beste batzuetan hezitzaileek egiten dituzte proposamenak eta hainbat elementu eta materialekin esperimentatzeko aukera eman (ura, lokatza, irina, pintura, musika instrumentuak, botatzeko materialak...). Etxean erabiltzen ez dituzten materialak erabiliz, txikitxoei sentsasio berriak ematea eta trebetasun eta gaitasun berriak garatzea ahalbideratzen zaie.

Zerbitzuak hainbat adinetako neska-mutilak hartzen dituenez, bakoitzaren habilezia eta interesen arabera ibiltzeko moduko materialak eskaintzen dira. Horrela, zahia, irina, arto txikitua, semola, etab. esku artean erabiltzeko beste ematen bazaie (normalean neurri politeko kubetak erabiltzen dira ume bakoitzarentzako), txikienei testura, usaina, zaporearekin, e.a. esperiementatzeko parada ematen zaie; beste batzuk trasbaseak egiten dituzte ontzi batetik bestera eta ikusi material hauek zer egiten duten enbututik eta irazkitik igarotzen direnean. Beste elementu batzuk gehitzen badira, kamioi txikiak, gomazko animaliak, panpinak, e.a., jokuak beste ikutu bat hartzen du, batez ere nagusientzako, zeintzuk, manipulatzeko, betetzeko, husteko balio zuen area, kamioiak betetzeko gai bihurtzen duten, edota animalientzako janari edota paisai menditsuak egiteko... Uda partean, ura ezinbesteko elementua da. Adin guztietako haurrentzako jolas atsegin askoa. Aukera asko ematen du gainera (trasbaseak egin, kualitateak behatu, lege fisikoren bat ikusi, transformazioa, e.a.).

Batzuetan proposamena ama batek egiten du. Esaterako, ikasturte honetan, talde baten, ama batek prestatzen ditu hilero joku eta talde berriak, ama bakoitzak bere haurrarekin egin ditzan. Hezitzaileek baliabideak eta ereduak eskaintzen dituzte haurrarekin interakzioan oinarrituta, eta gurasoak lagundu eta orientatu materialak erabiltzen, eta baita txikien aurrerapenak eta gaitasunak somatzen.

Haurrek hezitzaileekin batera ekintzak egiten dituztenean nagusiak present egoteak, hainbat aktibitate esanguratsu egiten du azken hauentzako, zeren eta ikustean haurrek nola jokatzen, gozatzen eta ikasten duten, haurren gaitasunez jabetzen dira, agian ordurarte ezezagunak zirenak edota haurrentzako eskuraezinak. Hau da hizkuntz espresibo guztiekin gertatzen dena, esaterako: musika, dantza, pintura, mugimendua..., normalki gai artistikotzat dauzkagunak, oso espezializatuak eta abstrakzio edo sinbolismo handia dutena, eta, ustez, haurrentzat eskuraezinak.

** Cuadernos de Pedagogía 239 aldizkaritik itzulitako artilukua.*

# Explora:
# Museo dibertigarria

**Paz Possé Hernanz**
**Granadako "Parque de la Ciencia"**
**Explora-ko koordinatzailea**



Granada, Parque de las Ciencias

Duela urte bat ezkeroztik, Granadan, zabalik ditu ateak Zientziako museo batek: **Zientzien Parkea**k.

Museo interaktiboa da, Zientzia eta Teknologia zabaltzeko helburua duena. Hura bisitatzea aktibitate atsegina eta ederra da.

Oinarrian dagoen ideia biztanleei ezagutza zientifikoa hurbiltzea da, eta, hori dela medio, inguruan daukaguna hobeto ulertzea.

Ingurua ezagutzea, printzipio fisikoen eta matematikoen ezagutza edukitzea,... hainbat esperientzia egiten dira; hala nola, bideo-kamara bat erabili, bizikleta batean jarri, gure itzala uzten saiatu, erlauntza bat behatu, Arkimedesen printzipioa egiaztatu... eta horien bidez, jolasaren bidez eta aktiboki, mundura hurbildu. Proposamen hau edozeinengana zuzenduta badago ere, konpromezu berezia du hezkuntz sistemarekin.

Museoaren edukinek ezagutza zientifikoaren hainbat alor jorratzen dituzte eta leku desberdinetan antolatuak daude: **Biosfera** gelak gure planetaren berri ematen du; **Percepción** gelan optikarekin, argiarekin... egiten diren esperientziak; **Eureka**n kontzeptu fisikoak (potentzia, indarra, elektrizitatea...) ulertzeko ekintzak egiten dira; eta **Planetario**ak zerura hurbiltzeko eta astronomiaz gehiago jakiteko gonbitea luzatzen dizu.

Museoaren sarreran Foucault-en penduluak egiten dizu harrera. Harekin batera, multimediako esperientzia zenbait daude: giza gorputza, ordenagailu baten funtzionamendua edota espazioko bidaia bat.

Kontestu honetan, premiazko ikusten dugu erabiltzaile gazteenen beharrei eta gogoei harreta eskaintzea, hots, haur txikiei. 3-8 urte bitarteko neskatila-mutikoek (Haur hezkuntzako 2. ziklokoek eta Lehen hezkuntzako 1. ziklokoek) badute beraiei bakarrik zuzendutako espazio bat: **EXPLORA** gela.

Gela hau beraientzat bakar-bakarrik pentsatuta dago. Museoak haur txikien aldeko apustua egin du eta horretarako gela bat diseinatu. Gela horretan, monitore espezializatu baten laguntzaz, Zientziaz eta Teknologiaz zerikusia duten esperientziak egin ditzakete.

EXPLORAk hainbat esperientzia, sentsazio eta joku eskaintzen dizkie. Horien bidez beren burua ezezik inguruko mundua ere ezagutzea ahalbideratzen da. Espazio sugerentea oso. Neskatila-mutikoak beren kasara ibiltzen dira, aske, gelan gora eta behera, dauden materialekin eta objetuekin **interaktibatzen** eta ikaskideen ondorio berberetara iristen.

Gela honen edukinak hiru esperientzia alorretan antolatuta daude. Hiru alor horiek erabiltzaileen interesak eta premiak jasotzen dituzte. Ekintza multzo bat osatzen dute eta helburua erabiltzaileen eta materialen-objetuen arteko interakzioa erraztea da. Hona hemen hiru alorrok:

**Zure sentimenak ikertu**. Haurraren gorputza igel batenarekin alderatu, zer usain den igarri, gorputz-atal baten arrastoa utzi, beren irudia hainbat ispilutan ikusi, eskuak erabilita ezkutaturik dagoen objetua ezagutu... aktibitate hauek eta gehiago aurki ditzakegu nork bere burua ezagutzeko.

**Zure ingurua ikertu**. Airea sentitu, urarekin jostatu, arrainek igeri nola egiten duten ikusi, imanekin eraiki, argiarekin jolastu, lupen bidez behatu, musika sortu... aktibitate hauek ingurunea hobeto ezagutzen lagunduko die, eta hortaz, gehiago ulertzea eta errespetatzea ahaldiberatzen da.

**Makinak ikertu**. Balantzekin jolastu, engranaje batzuk eraiki, polea bat erabili, eginkizun bat egin ordenadorez... aktibitate hauen bidez, neskatila-mutikoak makinen eta Teknologiaren mundura hurbilduko dira.

Gela honen metodologiak badu berezitasunik, erabiltzaileen ezaugarriak gogoan izan baitira. Sesioak atea itxita dagoela egiten dira eta irakaslea eta monitore espezializatu bat joaten dira lagun. Sesioek ordubete eta laurden irauten dute eta prozesu txiki bat jarraitzen dute: ekintza askeetan nahi izan duten guztia ikertu ondoren, elkarrizketatxo bat egiten dugu beraien sentsazioak, ikerkuntzak... jasotzeko. Beren esperimentuekin jarrai dezatela proposatzen diegu, eskolan, etxean, mendian... eta hurrengo batean ere, etor daitezela.

Helduek berriz, neskatila-mutikoen pausoak jarraitzen dituzte, motibatzaile papera jokatzen dute, esperientzietara hurbildu eta moduluak nola erabili irakasten die. Ez dio inoiz haur bati espontaneoki egiten ari dena moztuko, aitzitik, aske ikertzera motibatuko du, jakinmina garatzen. Finean, objetuekiko eta esperientziekiko interakzioa ahalbideratzen.

Familiako sesioetan (haurrak gurasoekin), asteburuetakoak edota oporretakoak, dinamika bera jarraitzen da. Familiak kanpoan itxoiten du eta haurrak monitorearekin batera aritzen dira. Azken 15 minutuetan familia sartzen da bila eta orduan haurrek ikasi duten guztia erakusten diete gurasoei, alegia "beraiek bai eta nagusiek egiten ez dakitena". Haurrak irakatsi egiten die helduei.



Esku artean erabili, ikertu, behatu, jostatu, barre egin, sentsasio eta esperientzia dibertigarriak konpartitu. Usnatu, entzun, konparatu, ordenatu, eraiki,... horien guztien bidez, bisitaldi atsegina eskaini nahi diegu haurrei eta horrenbestez, hurbiltzea beren burua ezagutzera, eta baita besteak eta inguruko mundua ere.

Hitz gutxitan saiatu natzaizue gonbitea pasatzen. Animatu, Granadan gauzkazue zain. Zientzietako Parkean, Explora gelan. Gauza asko konpartituko dugu, eta batez ere, gozatuz ikasiko dugu.

Granada,
Parque
de las Ciencias

# Haur jaioberriak igerian

Kepa Larrea
Athlon- Kirol Zerbitzuak



Donostiako TINTIN Kluba

Denok ezagutzen dugu urak bizitzan duen garrantzia. Begiratzea besterik ez dago: munduaren %75 ura da eta pertsonen gorputzaren %65-70 urez osatua dago.

Urak anitz erabilera ditu: pertsonak bizitzeko ura behar du gorputzak hidratazio egokia izan dezan. Jaten ditugun barazkiek, fruituek... ere uraren beharra dute; lan munduan ura ezinbesteko bihurtu da, eta, noski, lana bukatu ondoko aisialdian ere erabiltzen dugu.

Nor ez da noizbait erreka batean, itsasoan, igerileku edo aintzira batean bainatu? Helburua ezberdina izango da kasu bakoitzean, hots, gorputza freskatzea, terapeutikoki erabiltzea, ariketa fisiko apur bat egitea, e.a.

Ariketa fisikoa aipatu dugularik, igeriketa etortzen zaigu akordura eta, jakina, igeriketak dituen lau estiloak.

Baina igeriketa hori baino zerbait gehiago da. Igeri egitea likidoa den medio batean flotatzea eta traslazio mugimendua lortzea da, eta horretarako ez dugu inongo estilo zehatzik erabili behar. Adibidez, ume batentzat jolas egiteko era bat izango da, arrantzale batentzat uretara eroriz gero bizitza salbatuko diona... Kirol munduan, berriz, errendimenduaren emaitzak izango du garrantzia.

Igeriketaren garrantzia ikusi ondoren, azter dezagun igerian ikasteko adinik egokiena zein den.

Lehen aipatu bezala, igeriketa lau estilotan oinarritzen badugu, 3-4 urtetik aurrera hasi daiteke irakasten. Umeak ezberdinak direnez, batzuk errazago ikasiko dute eta beste batzuk denbora gehiago beharko dute (indar faltagatik, koordinazio faltagatik, e.a.).

Baina zer gertatzen da 2 urtetik beherakoentzako igeriketaz hitz egiten denean? Galdera ugari sortzen zaizkigu: beharrezkoa al da? Igeri egiten ikasiko al dute? Beldurra hartuko ote diote urari? Ur asko irensten al dute? Ura hotzegi badago, gaixotu egingo al dira?

Artikulu honen helburua galdera horiei erantzuten saiatzea da. Umea amaren sabelean egon denez, badu likidotan egoteko ohitura. Behin mundura etortzen denean baina, uretatik lurrera pasatzen da. Komenigarria izango da haurraren lehen hilabeteetan urarekin harreman ezberdinak izatea, hau da, bainatzeko orduan, igerilekuan pertsona kualifikatu batekin...

Adin honetako umeekin lan egiten duten pertsonek helburu zehatz batzuk dituzte:

- Umeei uretan flotatzen irakastea, batez ere gorantz begira.
- Uretan flotazioarekin batera traslazioa lortzea.
- Umeak ur azpian bere erreflexu arkaikoa lantzea (0-9 hilabeteen bitartean irauten duena).
- Umeak aurrerago izan ditzakeen beldurrak uxatzea.

- Uraren bidez estimulazio goiztiarra lantzea; horrenbestez, umearen mugimenduak, luzapena eta abarrak landuz.

Aurreko urrats hauek lantzen baditugu, umeak igeriketa estiloak bereganatu egingo ditu eta, era berean, koordinatzeko gaitasun hobea izango du.

Aurreko helburuen artean, umeak duen erreflexu arkaikoa aipatu dugu. Hori lantzea beharrezkoa da jaiotzatiko gaitasun hau ahantz ez dakion. Erreflexu hori umea ur azpian sartzen denean gertatzen da. Umeak nahi gabe glotisa ixten du eta ez du urik irensten; burua uretatik ateratzean, ohartu gabe, ahoko ura bota egiten du.

Aipaturiko helburuak bete egingo dira; ziurrenik behin ere beteko ez den helburua igerian ikastea da (aurretik esan dugun igeriketa kontzeptua eta estiloak kontuan izanik).

Finkanturiko xedeak eskuratzeko erabiliko dugun metodologia jolasa izango da, adin horretan jolasa baita garrantzitsuena.

Bizi izandako esperientziak garatu egingo ditu haurrak. Aldi berean, teknikoak esperientzia horiek ahal den eta naturaltasun handienaz irakatsiko ditu egoerak sortuz.

Bestalde, umeak igerileku barruan segurtasuna nabaritu behar du; horretan paper garrantzitsua jokatzen dute gurasoek. Igerilekuan, teknikoarekin batera, bietako bat egotea garrantzitsua da umeak ez baitu konfidantzarik teknikoarekin.

Askotan, eta hasieran batez ere, teknikoak eginkizunak agintzen dizkie gurasoei, bera behatzaile gisa dagoelarik bakarrik. Aurrerago, behin kontaktu txikiak egin ondoren, normaltasunez parte hartuko du.

Sesioak 20-30 minutu inguru irauten dute. Iraupen hau ez dago soilik umearen arabera, igerilekuaren egoerak ere zerikusi handia izango du.

Instalazioei dagokienez, igerilekuaren basoak 1,20-1,50 metrotako sakonera izango du; zabaleraz eta luzeraz ez dira oso handiak izan behar. Uraren tenperatura 30-32ºC-koa izango da. Aldiz, kanpoko tenperaturak 2ºC gutxiago izan ditzake (gutxiago ez da komenigarria).

Guzti honen zergatia haurraren defentsak helduenak baino baxuagoak direlako da. Horrek haurra azkarrago hoztea dakar.

Uraren tenperatura garrantzitsua den bezala, uraren garbitasuna ere funtsezkoa da, ur beroarekin bakteria eta germen kopuruak gora egiten baitu. Beraz, arreta bereziz zaindu behar da ura, maiz filtratuz eta garbituz.

Materialari dagokionez, uretan erabil daitezkeen guztiak erabil daitezke: pulboya, mangitoa, flotadorea, taulak, ur-alfonbrak, e.a.

Aurrekoa laburbilduz, hiru ondorio hauek atera daitezke:

. Umearen garapen motorrerako oso garrantzitsua da.

. Urarekin harremanetan jarraituz gero, urak sor ditzakeen beldurrak uxatu egingo ditu.

. Umeak uretan biziraute lortuko du.

Ekintza mota hau Gasteizen, Donostian, Hernanin... egiten da.

# ELKARRIZKETA

## MIKEL LIZARZABURU

*G: Zein izen du zure semeak?*
M.L.: Aitor.
*G: Zenbat urte ditu?*
M.L.: 7 hilabete.
*G: Zein ekintza mota egiten du?*
M.L.: Haurrentzako igeriketa edo uraz gozatzeko ekintza.
*G: Noiztik egiten du?*
M.L.: Orain dela bi hilabete hasi zen
*G: Non egiten du?*
M.L.: Gasteizen
*G: Zer dela-eta Gasteizen?*
M.L.: Gure bailaran (Deba Garaian) ez dagoelako horrelako gauzarik egiteko aukerarik.
*G: Zer egiten du saio baten? Zenbat irauten du?*
M.L.: Saio batek 30 minutu irauten du eta bertan gutxi gorabehera zera egiten du:
*Poliki-poliki busti (aitak edo amak ertzean hartzen du).
*Uretan hainbat jolas eta mugimendu egiten ditu.
*Ondoren, hainbat ariketa egiten dira: belarriak uretan sartu, gorputza gora eta behera erabili, burbuxak egin...
*Flotazioa landuta amaitzen da. Hau oso garrantzitsua da.
*G: Nola bururatu zitzaizun umea igerilekura eramatea?*
M.L.: Ni oso urzalea naiz eta horrek bultzatu ninduen.
*G: Inoiz pentsatu duzu igerian ikasiko duela?*
M.L.: Ez. Ez da nire helburua. Flotatzen badaki. Igerian lau urte izan arte ez dute ikasten, hau da, teknikarekin.
*G: Zuk hartzen duzu parte?*
M.L.: Bai. Haurra nirekin dago saio osoan. Monitoreak klasea zuzentzen du, baina haurra nirekin dago denbora guztian.
*G: Gustora parte hartzen duzu?*
M.L.: Bai, oso gustora.
*G: Zer jarrera ikusten diozu haurrari?*
M.L.: Asko gustatzen zaio. Ohinak ateratzen ditu eta gehiago ikasi nahi duela ikusten zaio.
*G: Ezer esango zenieke beste gurasoei?*
M.L.: Esperientzia guztiak aberasgarriak direla umeentzako eta urak dituen ezugarriak aprobetxatu egin behar direla hainbat mugimendu lantzeko.
*G: Haur asko joaten al dira igerilekura?*
M.L.: Aitorren taldean, hau da, 6 hilabetik urte t'erdi bigartean, 12 haur daude.
*G: Zer helburu duzu?*
M.L.: Berarekin egiten dudan beste jolas bat da. Denbora horretan semearekin disfrutatzea da helburu nagusia.
*G: Zenbat kostatzen dute ikastaroek?*
M.L.: 3 hilabeteko kostea 15.000 pztakoa da. Astean bi saio egiten dira.

***Mila esker Mikel eta beste bat arte.***

# Haur-oihalez jantzitako irakurleak Donostiako Udal-Liburutegian

Concepción Chaos.
Liburuzaina
Donostiako Udal-Liburutegiko Haur-Saila



Donostiako Udal-Liburutegiko Haur-Saila

Duela urte gutxira arte, 5 urtetik beherako haurrak ezin ziren Liburutegietara sartu; irakurtzen ez zekitenez, Liburutegiari inongo etekinik aterako ez ziotenaren ustean zegoen. Haatik, oraintsu egindako zenbait ikerketen arabera, eskolaratu baino askoz ere lehenago dago haurra prest liburua ezagutu eta gozatzeko, inongo obligazioren azpian ez dagoeta.

Hori dela-eta, 1994ko maiatzean, Donostiako Udal-Liburutegian Haurrentzako Sail berriari ateak zabaldu eta zerbitzuak planifikatzeari ekin genionean, hasiera-hasieratik pentsatu genuen irakurle txiki hauek hartzeko gela berezi bat atontzea.

Erabiltzaileen izaera bihurri eta burrundaratsua kontuan izanik, aurre-irakurleetzako gela edo Haurtxoteka Haur-Liburutegiko bigarren solairuan ezarri genuen eta ume-kotxeak ere sartzeko moduko igogailu bat dela medio, zuzeneko sarbidea dute kaletik erabiltzaileek.

Gela honetako altzariak erabiltzaile txikien beharrei erantzuteko egoki antolatu genituen. Hauexek dira altzariok: buc-ak, erakus-apaltxoak, mahi nimiñoa aulkitxoekin, goma-aparrezko moduluak eta aulki hirukoitza; denak ere berde, urdin eta hori kolore bizikoak. Azkenik, lorategietan egoten diren aulki horien antzekoak ditugu, umeen gurasoak edota arduradunak eroso egon daitezen. Leku atsegina da, irakurtzeko aproposa.

## ❑ Helburuak

Honako hauek dira Haurtxotekaren helburu nagusiak:

- Hala liburuaren munduan nola Liburutegiaren erabileran, haurra lehen bait lehen murgiltzea.
- Prozesu horretan gurasoak ere sartzea, funtsezkoa da-eta haurraren irakurzaletasuna gara dadin.
- Lehen liburuetako hitz, kolore eta irudiez jabetzeak berarekin dakarren gozamena gurasoek ere bere egin dezaten, leku aproposa eskaintzea.
- Oraindik irakurtzen ez dakiten haurtxoek liburu bilduma bat eskura izatea, batetik eurek gustuko dutena erakutsiko diena, eta, bestetik oraindik ezagutzen ez dutena.

-Eta, azkenik, hainbat ekintzaren bitartez, ezagutzera ematea liburuaren eta umetxoentzako irakurgaien alderdi desberdinak.

## ❑ Liburuak

Zalantzarik gabe, txikienentzako liburu-ekoizpena franko handitu da azken urteotan. Egun merkatuan dagoen aniztasunari esker, kalitate, estetika nahiz itxura-faktoreak har ditzakegu kontuan liburuak aukeratzeko orduan.

Haurtxotekan dauden liburura k, 700 inguru, ondoko berezitasun hauen arabera sailkatu ditugu:

- **Eguneroko bizimoduari buruzko liburuak.** Ilustrazio xumeen bitartez, familiarteko eta eguneroko ihardueretan ari diren haurrak agertzen zaizkigu: janzten, bainatzen, jaten, e.a.

- **Parte hartzeko liburuak.** Forma eta egitura desberdineko liburu hauek, irudiei begiratzeko ezezik, liburuaren elementu ugariak eskuztatu eta sentitzeko ere baliatuko zaizkio haurrari. Gardenkiek, soinuek, mugimenduek, destolestagarriek, e.a., txunditu eta liluratu egiten dituzte umen txikiak. Liburuaren eta jostailuaren arteko erdi-bidean daude liburuok.

- **Liburu ipuindunak.** Liburu hauen artean, errazenetatik hasi eta zailenetaraino, bertsolerro errimatuekin batera istorio samurrak adierazten dituzten irudi-liburuak, abesti eta esaldi laburrak dakartzatenak eta istorio osoa harilkatzen duten liburuak daude.

Testua ilustrazioaren osagarri da eta haurra haziz doan heinean testua ere hedatuz eta korapilatuz doa. Txikiek hitzen errepikapenaz gozatzen dute eta behin eta berriro eskatzen digute istorio bera konta diezaiegun.

-**Ezaguera-liburuak.** Liburu hauek haurrentzat interesgarriak diren gaien berri ematen dute: animaliak, gauzen funtzionamendua, e.a.

Irudimen handiz landutako proposamenez hornituta datozen liburu hauen bitartez lortu nahi



Donostiako Udal-Liburutegiko Haur-Saila

dena zera da: txikienen aurkikuntza berriak egitea eta ingurunea aztertzen ondo pasatzea.

Hauetariko liburu gehienak material gogorrez eginda daude, haurren liburu-maneiu oraindik baldarrari aurre egiteko moduan; gaineran, orokorrean, garbitzeko samur-samurrak dira.

## ❑ Erabiltzaileak

Oro har, Liburutegira aurreneko aldiz etortzen diren gurasoak eta arduradunak txundituta geratzen dira, ume txikientzako liburuak aurkitzeaz gainera, liburuok udal-liburutegiko gela berezi batean eskura dituztela ohartzen direlako.

Eta euren buruari galdegiten diote, ea umeak, istorio bat kontatzen zaienean, zeozer ulertuko ote duten; ea gai izango ote diren formak, marrazkiak, koloreak, e.a. bereizteko... Beste batzuek, umeek liburuak hondatuko dituztela uste dute...

Liburutegira estrainekoz datozen pertsona hauei guztiei Liburutegia, eta bereziki Haurtxoteka, nola erabiltzen diren azaltzen diegu gainetik. Gainera, informazio-orri bat banatzen diegu adieraziz, alde batetik, Haurtxoteka erabiltzeko arauak eta bertako helburuak, eta, bestetik, liburuarekin topo egin berri duten umearen aurrean hartu beharreko jokaeraz gomendio batzuk.

Orokorrean, helburu hauen aurrean gurasoek hartzen duten jarrera ona da, nahiz eta Liburutegia nola erabiltzen den ez dakitela eta irakurtzeko zaletasunik ez dutela igartzen den. Honen ondorioz, Haurtxoteka jolasleku bihurtzen da batzuetan, liburuak ahaztuz.

Orobat, zerbitzu honen erabiltzaile txikiek, nahi izanez gero, liburuak maileguz har ditzakete etxera eramateko. Gaur egun, 285 dira izena emanda daukaten 5 urtetik beherako haurrak, eta esan daiteke oso irakurle gogotsuak direla, Haurtxoteka erabili eta sarri askotan eramaten dituztela liburuak, kasu batzuetan astero-astero. Bazkiderik gazeteenek 5etik 6 hilabete bitarte dituzte, eta adin desberdinateko anaiarreba bazkideak izaten dituzte usu.

## ❑ Ekintzak

Liburutegian burutzen diren ekintzak esperimentalak izan ohi dira, umeentzako liburu eta liburutegiak ez daude–eta hemen oso erroturik; erreferentzia gutxi daukagu eta dauzkagunak atzerrikoak dira. Hala ere, azken urteotan, hainbat eta hainbat liburutegitan atondu dituzte irakurle txikienentzako leku bereziak, eta gero eta gehiago dira bertara gerturatzen diren umeak.

Gure Haurtxotekan burutzen ditugun ekintzak, Lurdes Otermin psikologoaren lanari lotuta daude gehienbat. Lurdes hamabostean behin biltzen da gurasoekin, liburuak haurraren garapen emozionalean eta inguruarekiko harremanean betetzen duen paperaz mintzatzeko.

Hitzaldi hauek ostiral arratsaldez egiten dira, LEHEN URRATSAK deritzon egitarauaren barruan, eta bertan aurrez ezarritato gai konkretuez dihardute.

Hitzaldiari hasiera emateko, Haurtxotekan sartuko diren liburu berrien aurkezpena egiten da.

Egitarau honen barruan, txikientzako propio, Ipuinaren Ordua deritzona egiten da. Gurasoak psikologoaren hitzaldian dauden bitartean, haurrek ipuin-kontalari baten istorio eta trikimailuez gozatzen dute.

UDAL-LIBURUTEGIA
HAUR-SAILA.
HAUR-LIBURUEN DOKUMENTAZIO ZENTRUA

Fermín Calbetón kalea, 25
20003 Donostia
Tel. 942. 425453

Donostiako Udaleko Udal-Kultur Patronatuko
Liburutegi-Sailean integratua

**Azalera:**
500 metro karratu

**Fondo bibliografikoa:**
12.000 liburu, 37 aldizkako argitalpen

**Fondo historikoa:**
4.000 liburu

**Ordutegia:**
astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00ak arte. Larunbatetan, 10:00etatik 13:00 arte.

**Oporrak:**
aurreko ordutegia gehi astelehenetik ostiralera bitarteko goizak, 10:00etatik 13:00ak arte.

**Katalogoak:**
autore eta obra anonimoak, gaiak, izenburuak, bildumak, ilustratzaileak...

**Zerbitzuak:**
informazioa, irakur eta kontsulta-gela, mailegutza, bebeteka, ekintzak, fotokopagailua.
Haur-liburuen dokumentazio zentrua.

# Arrasateko Ludoteka

Goizane Jausoro
Iratxe Vázquez
Ludotekariak. Txatxilipurdi Haur eta Gazte ekintzak - AED - Arrasate



Txatxilipurdi. AED. Arrasate

Txatxilipurdi elkartea, hamar urte luzez (hasieran AEDko sail bat izanik eta hiru urtetik honera bere kabuz), Arrasateko haurren aisialdiaz arduratu ohi da. Beti ere, aisialdia eta euskara bat eginez.

Udaran, udalekuak (irekiak zein itxiak); irailean, udalekutxoak eta larunbatero, larunblai eta txatxiartistak (larunbatetako eskolaz kanpoko ekintzak).

Baina hutsune bat somatu daiteke hemen, hau da, astelehenentik ostiralera bitarteko aisialdi tarte hori bete beharra.

Egin behar hori betetzeko sortu zen, orain dela hiru urte, txatxilipurdiko ludoteka.

## ❑ ZER DA JOLASA?

Jolasa, berezko ezaugarriak dituen iharduera berezia da. Denontzat, jolasa barrearekin eta dibertsioarekin lotuta dago. Jolasa pozez eta atseginez egiten den liberazio bide bat da, baina ezin da denbora-pasa atsegin bat dela esan soilik; umearen kasuan, bere burua eta ingurugunea ezagutzeko behar-beharrezkoa eta ezinbesteko da-eta.

Jolasaren bidez bere nortasuna garatu egiten du haurrak, baita gure taldeetan edo gizartean "leku" bat hartzen lagundu ere.

## ❑ HAURRAREN JOLASARI GIZA ARLOAK JARTZEN DIZKION MUGUAK

Gaur egungo bizimodu mekanizatu, monotono eta estresantea izan da jolasa galzorian jarri duen faktore garrantzitsuenetariko bat.

Hirietako arriskuak eta komunikazio ezak, jolaskide beharra sortarazten dizkio haurrari. Hau da, egoera honek haurra mugatu egiten du etxeko girora eta ez dio erraztasunik ematen jolaskide berriak egiteko eta ondorioz beraiekin jolasteko.

Helduen laguntza eta bultzada ez da behar adinakoa izaten, nahiz eta haurrak helduekin jolasteko beharra izan. Ezin dugulako edo nahi ez dugulako, ez da umeen nahi hori betetzen sarritan.

## ❑ ZER DA LUDOTEKA? NORENTZAT DA?

Ludoteketan jostailuak mailegu gisara eskura ditzake umeak, eta jostailua bitarte duela jolas daiteke, ludotekari edo haur sustatzaileen laguntza izan dezakeelarik. Halaber, ludotekak ume eta gazteentzako solas eta kultur erakundeak dira, batez ere jolasaren eta jostailuaren bidez umearen nortasuna hezitzea helburu nagusi dutenak. Horretarako, umeen jolasa bultzatu, lagundu eta erraztu egiten dute, umeei jolaserako behar dituzten bitartekoak - jostailu, jolasgai eta jolastokiak - nahiz laguntza, jolaskideak eta erakuspenak eskainiaz.

Ludotekan, bereziki haurrei zuzenduak egon arren, nagusiek ere haurrekin batera, oso paper interesgarria egin dezakete, batipat ume hauen laguntzarako eta harremanak sendotzeko eta lantzeko direnean.

Oso garrantzitsua da ludotekaren eta haurtzaindegiaren funtzioak ezberdintzea. Hau aipatzerakoan zera esan nahi dugu: ludotekaren eguneroko funtzionamenduan, inertsiaz, oso erraza izan daitekeela bata bestearen zereginetan sartzea.

Ludotekaren funtzioa, arestian aipatu dugun bezala, jostailuak nola erabili irakastea izango litzateke, beste askoren artean; baina haurrak berak nahi duelako eta nahi duenean sartzeko aukera izango du eta ez gurasoei edo umearen arduradunei komeni zaienean. Bestalde, ludoteka guztiek, adin batzuk finkatzen dituzte eguneroko erabiltzaileentzat, beraz, bertan dauden jostailuak adin horietarako egokiak izango dira eta ez gazteago edo zaharragoentzat.

Haurra ludotekara datorrenean, gai izango da, nahi duen jostailua aukeratzeko eta jolas egin duenean, gaitasun berdina izango du jasotzeko eta aurkitutako moduan uzteko.
Gai izan behar du jostailua errespetatzeko eta ludotekan bere kabuz ibiltzeko eta txokoak ezagutzeko.

Erabiltzaileen adina 3-14 urte bitartean egongo da. 3 urte baino gutxiago duten haurrak, hainbat arau (higienea, ordena, autonomia,...) betetzeko gaitasunik ez baitute agertzen.

Ez dugu adin tope bat jartzeko beharrik ikusten, baina normalean, ludotekako jostailuak 14 urtetik gorakoentzat ez lirateke aproposak izango.

## ❑ KONTSUMISTA EZ, KRITIKOA BAIZIK

Gaur egun denok gaude oso presionaturik kontsumismoaren fenomenoa dela-eta. Zer esanik ez telebistak umearengan duen indarra bai jostailuak aukeratzerakoan edota beste erabaki bat hartzerakoan erabakiorragoa da egunetik egunera.

Horrela, haurra txunditurik gelditzen da telebistaren bidez jasaten duen bonbardeaketa publizitarioarekin. Haurrak jostailu bakoitza bereziki nola erabiltzen den jakin ez arren ere, itsutu egiten da marka jakinekin eta ikusten dituen jostailu aurreratuenekin harrituta gelditzen da.

Hemendik aurrera umearen lana, berari atsegin zaion jostailua eskatzea izango litzateke eta gurasoek berriz askotan dudaren aurrean, beraien maila ekonomikoa izaten dute kontutan eta horren arabera, jostailuaren funtzioa eta eragina ezagutu gabe, haurrak eskatutakoari erantzuten diote. Erosi eta gero etortzen dira arazoak, haurrek nola erabili ez dakitelako edo benetan beraien nahia bete ez delako hasieran uste zuten bezala.

Ludoteka arazo guzti hauen konponbide eta lagungarri izan daiteke. Hau da, gurasoei, haurrei zer erosi gomendatzerakoan eta baita haurrari zer aukeratu ez dakienean edo aukeratzen laguntzerakoan.

Garestiena ez da onena!

## ❑ IZAERA EUSKALDUNA

Gaur egun, Arrasaten eta gainontzeko herrietan, funtsezko lana eta ahalegina egiten ari da bai instituzioetan eta bai beste hainbat sektoretan, euskara eguneroko hizkuntza bihur dadin euskaldunen artean eta baita ere erdaldunen edo behintzat beraien seme-alaben artean.

Ludoteka ere, hezkuntza eta eskolaz kanpoko ekintza zirkulu honen barruan dagoenez, bertako dinamikak besteenekin ere lotura izan beharko du.

Ludotekak, funtzio ludikoak beteko ditu gehien bat eta berari



EPSTEIN, J; RADIGUET, Ch.; *"L'explorateur nu"* éditions universitaires, 1982



Txatxilipurdi. AED. Arrasate

dagozkion helburuak izango ditu, baina beti euskararen normalkuntzarako funtsezko lana egin dezakeela ahaztu gabe.

## ❑ FUNTZIO INFORMATIBOA 'ZER ETA NOLA EROSI'

Gurasoek haurrari edozein jostailu erosterakoan ere, ludotekak badu bere garrantzia. Haurrari jostailu berri bat erosterakoan, oso atsegina egingo zaio eta bere poztasuna agertuko du berehala hainbat arrazoigatik (afektibitatea demostratzeko, sorpresa, nobedadea etab...) baina momentua pasatu eta gero ikusiko da benetan, jostailuaren egokitasuna bere funtzioak betetzeko.

Haurrak, hasierako momentua pasatu ondoren, (bi edo hiru egunetara) oraindik jostailuarekin jolasten jarraitzen badu, esan dezakegu jostailua haurrarentzat egokia suertatu dela.

Alderantzizkoa suertatuko balitz, ez duela erabiltzen edo erabiltzen duen bakoitzean esperientzia negatiboak ekartzen badizkio (haserrea, agresibitatea, fustrazioa, etab....) oparia frakasu bat izan da.

Hau dela-eta, ludotekako arduraduna, pertsona egokia izango litzateke, nori noiz eta zer erosi gomendatzeko. Ez dezagun ahaztu, jostailu gehienak adin konkretuetarako direla egokiak soilik.

Larregiko azkar eskainiz gero, edo haurra gazteegia denean eta jostailua nagusiagoentzat, erabiltzen ez jakiteak, desanimatu egiten da haurra. Eta berdin gertatzen da alderantziz denean, jostailua txikientzat eta haurra nagusiago izatean.

Ludotekan, berriz, haurrak, egokia ez den jostailua hartzen badu, aukera izango du egokia den beste bategatik aldatzeko eta ez luke aurretik aipatu ditugun dezepziorik eta desanimorik izango eta ez eta alperrikako gasturik ere.

Hiru urtetako ibilbide honetan, Txatxilipurdiko ludotekak eskaintzen dituen zerbitzuei esker laguntxo pila bat egin ditugu:

Erdialdeko ludotekan, egun 178 bazkide dira (gehiengoa ludotekaren sorreratik gurekin daudenak).

Larunbatetan auzoetako ludoteka ibiltarian, neska-mutiko asko ezagutzeko parada izaten dugu.

Arrasateko ikastetxeetatik gure tailerretan parte hartzera etortzen diren laguntxoak. Tailer hauetan beraientzat interesagarriak diren gaiak lantzen ditugu (ihauteri tailerra, jostailuen tailerra, zaborren tailerra).

Herriz herriko jostailu erakusketa gidatuaren bitartez haur eta guraso askorengana hurbiltzen gara, jostailuen inguruan informazio praktikoa eskaintzeko asmoz.

Aurrera begira ere, zerbitzuak ugarituz joango gara; hala nola, uztailean burutuko dugun programa bereziaren bidez, haur hezkuntzan hasi behar diren txikitxoak adin bereko beste haur batzuekin harremanetan jarriko ditugu eskolan hasi behar direnean ohituta egon daitezen.

Aldi berean, hemendik aurrera (adina gainditzen dutelako) ludotekara etorri ezingo direnentzat bide berriak zabalduz joango gara, besteak beste gazte txokoetara pasatzeko aukera eskainiz.

Etorkizunean ere ludotekako zerbitzuak ugarituz jarraituko dugu, beti ere jolasean lagunak eginez.

# Egin jolas...
# ... zaratarekin

Luchy Mancisidor Larrañaga



Granadako *Parque de la Ciencia*

**EGIN JOLAS** zaratarekin...
zaratekin...
kalekoak direla,
edota etxekoak.
Guk nahi dugunean hots egiten duten gauzekin,
**nahi ez badugu ere hots egiten** dutenekin

**zarata**
**soinua**
**abestia, ahopeko kanta,**... haur txikien etengabeko jarduna, bat-batekoa eta atsegin askoa.
Primerako lanabesa **MUSIKArako** zaletasuna bizteko ardura edo grina duen gurasoarentzat, irakasle edota helduarentzat.

Zeren esperientziak zera diosku, ume batek, ume guztiek, edozein umek, inolako arazorik gabe ikasiko duela **hizkuntza musikala**, **instrumentu bat jotzen**, aldez aurretik prestatua eta sentsibilizatua izan bada.
Eta zer den etengabeko **jolas** hori?
Bada, soil-soilik, zaratak-soinuak present dauden uneak, hau da, ia guztiak, profitatzea.

Esaterako: **kalea.**
Autoak, motorrak, bozina-hotsak, kamioiak, obrak eta langileak, jendea berriketan, negar edo oihu egiten duten haurrak, ura putzuan, iturrian...
Geratu egiten gara, zarata datorren lekura hurbildu, belarrietan **jaso egiten dugu** eta, gero, etxean, gogoratu: nola egiten zuen...?, soinu gogorra zen? motela? atsegina? aspergarria?
Parkera ere joan gaitezke eta oinetakoekin zaratak ateratzen jolastu, botekin, zapatekin...
Ibili, korrika egin, salto, hankekin arrastaka ibili... eta, beti, **zarata desberdina**.



EPSTEIN, J; RADIGUET, Ch.; *"L'explorateur nu"* éditions universitaires, 1982



Granadako *Parque de la Ciencia*

Eta etxera itzultzean, igogailua baldin badago, ateen hotsa entzuten dugu,
eta txirrina?,
eta giltza?,
eta atea?...

**Soinuz josita** dauzkagu **belarriak**.
Orain, afaldu eta ohera joan aurretik, **BAINUGELARA** joan behar da. Han bai ondo gero!
**TXIPLI-TXAPLA, TXURRUST-TXURRUST, TTAN-TTAN...**
Bainugela, dutxa, lababoa..., txorrota...
Belakiak edo esponjak... txorrotak bezala egin dezake: ttanttak, txorrostadak,

Eta **telebista** pittin bat oheratu baino lehen...
marrazki bizidunak eta abestiak, guk **tipitipitipiti, tralalalalalala, tirripititin...** eginez lagundu ahal ditugunak...
eta ahoa itxi eta eskuekin txalo egin...
edo aspertuta gaudenean, goilara eta tapa bat hartu, eta abesten jarraitzen dugu, **tarapaparitarapapapa...**

Eta ohera joan behar dugu, lolo egitera,
eta jolastu dugun gauzak geldi-geldi geratu behar dira,
txorrotak ez du abesten, **ixxoooooooooooo,** ixiltasuna da nagusi,
baina haizea entzuten da, eta euria
eta bizilagunaren telebista batzuetan...
eta izarrak? ez diegu entzuten, baina asma dezakegu nola agurtzen dioten elkarri, nola deitzen, mugitzen... paseatzen... duten elkarrekin...
Eta ipuina musikarekin kontatzen badidazu? askoz hobeto lo egiten da...

Eta, bihar, goizean, jaikitzen garenean **jolasten** jarraitu ahal dugu,
**entzun, entzun:**
armarioa, kalera ateratzeko arroparekin kaxoiak: ireki, itxi,
leihoa, atea, horma, denak du bere soinua...



eta hartz txikiak, panpinak, jostailuak...
eta **dunba, danba, txist, zart, ...**

**Eta sukaldean? Han bai denetarik!**
garbigailua, ke-uxatzailea, kafeontzia.... eta traste pilo bat,
**orkestra edota txaranga** bat egiteko beste...

Nagusiagoak gara, baditugu lauzpabost urte, eta **jolasten** jarrai dezakegu,
orain gauza gehiago ezagutzen ditugu, adibidez, **tinbrea**, hau da, **soinuen kolorea, iraupena,** soinu motzak edo luzeak diren, kolpe hutsa, keinu zehatzagoak, edota **aaaaaaaaaa** egin dentistarenean bezala, edota **a!**, sustua hartuta, edo **ai!** mina hartuta...
eta hau guztiau **gogorra/motela, edota musikoek esaten duten bezala, intentsitatea**
edo ahotsa jaitsi/igo, lantegiko sirena bezala...
edota abestu, edo animaliak imitatu, egin I **zaldiak BEZALA**
I
I

Eta belarriak beti erne, adi dena **jasotzeko,** eta
belarriak burmuinera eraman ditzala soinuak, eta
burmuinak esan: hau zarata da,
hau soinua da,
hau musika da...
eta horri **entzutea** esaten zaio...

eta handi egitean instrumentu bat jo nahi badugu,
edota adiskideekin abestu, edo koru batean,
edota MUSIKA entzun, kontzertu batean edo etxean ...
**gu bai zorionekoak** zeren askoz ere gehiago gozatuko dugu eta, gainera, jakingo dugu ixiltasuna apreziatzen: soinurik, zaratarik eza, hain juxtu...

# Baliabideak




**Monica STILMAN DE MEN (1991):**
**Espacios abiertos para la infancia.**
**Gizarte Arazoetarako Ministerioa,**
**Madril.**

Hiriko jolas espazioei buruzko ponentziak eta hainbat herrialdetan egindako zeinbat esparientziaren bilduma eskaintzen zaizkigu liburu honetan.

Esperientzia guztiek helburu bera dute: haurrari jolasaren beharra sentiaraztea eta haurren aisialdirako kalitatezko espazioak prestatzea eta bultzatzea. Oinarrian, filofosia bat: haurra hiritar osoa dela, eskubide guztiekin.

Material oso interesgarria hausnarketarako eta ideiak pizteko.



STILMAN DE MEN, M; "*Espacios abiertos para la infancia*", Ministerio de Asuntos Sociales. Madrid, 1991.



STILMAN DE MEN, M; "*Espacios abiertos para la infancia*", Ministerio de Asuntos Sociales. Madrid, 1991.



STILMAN DE MEN, M; "*Espacios abiertos para la infancia*", Ministerio de Asuntos Sociales. Madrid, 1991.

STILMAN DE MEN, M; "*Espacios abiertos para la infancia*", Ministerio de Asuntos Sociales. Madrid, 1991.



# JAKINGARRIAK

Dokumentazio Zentrua • 0-7 urte • IRAKASLE ESKOLA • Eskoriatza





EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION